

5. ERANSKINAK

1. eranskina: Elorrioko euskararen ezaugarriak

1. MORFOLOGIA

1.1 ADITZAREN MORFOLOGIA

1.1.1 ADIZKI JOKATUAK

1.1.1.1 ADITZ LAGUNTZAILEA

- (1) Dot vs dut
- (2) Neban vs nuen
- (3) Naz vs naiz
- (4) Deusta vs dit
- (5) Jata vs zait

1.1.1.2 ADITZ TRINKOA

- (1) Dago/dabil vs ari da
- (2) Dinot vs diot
- (3) Dagoz vs daude
- (4) Deko/dauko vs dauka

1.1.2 JOKATU GABEAK

- (5) Kantetan vs kantatzen
- (6) Mobidu, segidu vs mugitu, segitu
- (7) Hotzitu, hutsitu vs hoztu, hustu
- (8) Amatau, harrapau vs amatatu, harrapatu

1.2 IZENAREN MORFOLOGIA

- (1) Lagunagaz (lagunaz), lagunakaz vs lagunarekin, lagunekin
- (2) A+a= ea vs a+a=a
Alabea vs alaba
- (3) Goruntz vs gorantz
- (4) Norendako vs norentzat/norentzako
- (5) Izenordain indartuak
Neu, geu, zeu, zeuek vs ni/nerau, gu/guhaur, zu/zuhaur, zuek/zuhauek
- (6) Datiboaren atzizkia *-eri* vs *-i*
Norbaiteri, honeri vs norbaiti, honi
- (7) "Edo" + galdetzailea
Edonor, edonori, edozelan, edozer, edonoren, edonogaz/edonorekin...
(euskara batuan onartzen badira ere) vs nornahi, nornahiri, nolanahi, zernahi, nornahiren, nornahirekin...

- (8) Izenordain galdetzailea + “edo” + izenordain galdetzailea
Nonor, nonora, nonogaz, nonori, zer edo zer (zeozer)...
- (9) Zelan, holan, halan vs nola, horrela, hala

Erakusleen morfologia

- (10) Ha, honeek, horreek, hareek vs hura, hauek, horiek, haiek
- (11) Eurak vs beraiek*
- **Eurak* euskara batuan ere onartzen den arren, mendebaldeko euskaratan eta goi-nafarrera garaian erabiltzen da batez ere.

Atzizki batzuk: maileguzkoak eta txikigarriak

- (12) Gaztelerazko maileguzetan, *-ino* atzizkia gehitzen da vs batuko *-io*
Globalizazio, perkusino vs globalizazio, perkusio
- (13) Gaztelerazko *-tor* amaierako maileguzetan (motor, tractor) *-a*
atzizkia gehitzen da *-ea* beharrez
Traktora vs traktorea
- (14) Ibontxu, amaxu vs Ibontxo, amaxo
- (15) *-to* atzizkia vs *-gi/-ki*
Ederto, txarto vs ederki, gaizki

2. ADITZAREN ERABILERA

- (1) Egon da vs zegoen
Papera hartzera joan naizenean, lurrean egon da vs lurrean zegoen
*Euskara batuan ere *egon da* erabiltzen den arren, beste erabilera bat ematen zaio. Adibidez: *Paper hau lurrean egon da lehen* (baina jada ez dago lurrean). Aipatutako kasuan, hau da, ni papera hartzera joan naizenean, lurrean zegoen oraindik, beraz, euskara batuan *zegoen* erabiltzen da.

3. MORFOSINTAXIA

- (1) Konpletiboak, jakin aditzarekin egiten dira, esaten dena guztiz ziurra denean: *-(e)na* vs *-(e)la*
Badakit etorriko dena vs badakit etorriko dela
- (2) Erakusleak izenaren ezkerrean jartzen dira eta biak deklinabide marka berarekin:
Horregaz gizona(ga)z vs gizon horregaz
- (3) *-arren* vs *-gatik*
Jakitearren galdetu dut vs jakiteagatik galdetu dut

- (4) Ze... vs ...-gatik/...-lako
Etxera noa ze diru barik irten naiz vs etxera noa diru barik irten naizelako.
- (5) Ergatibo pluralean, -ak atzikia erabiltzen da, eta ez -ek:
Irakasleak egin dute vs irakasleek egin dute
- (6) Helburua aditz jokatu gabeen forman adierazterako orduan, -ten erabiltzen da –tera beharrez:
Zertan zoaz vs zertara zoaz
- (7) *Zertan zoaz euskara batuan ere erabil daiteke, baina beste esanahi batekin. Esaterako: *Zertan zoaz? Autobusean noa.*

4. LEXIKOA

4.1 ALDAERA HUTSAK

- (1) “u” vs “i”
 Ule, urten vs ile, irten
- (2) “i” vs “u”
 Gitxi, urrin vs gutxi, urrun
- (3) “a” vs “e”
 Barri, txarri vs berri, txerri
- (4) “d” vs “l”
 Bedar, edur vs belar, elur
- (5) “g” vs “k”
 Ebagi, esegi/eskegi vs ebaki, eseki
- (6) Andra bat vs andre bat
- (7) Izenordainak pluralean –tzuk vs -∅
 Nortzuk, zeintzuk, zertzuk vs nor, zein, zer
Nortzuk dira gazteak vs nor dira gazteak
- (8) Aditz batzuei –n itsasten zaie amaieran
 Eukin, igon vs eduki, igo
- (9) Beste batzuk:
 Ahizta, bere (be), eperdi vs ahizpa, ere, ipurdi

4.2 LEXEMA DESBERDINA DUTEN HITZAK

- (1) Adore vs kemen
- (2) Amatatu vs itzali
- (3) Berba vs hitz
- (4) Gura vs nahi
- (5) Korta vs ukuilu
- (6) Jausi vs erori
- (7) Argal vs mehe

- (8) Bider vs aldiz
- (9) Itxi, laga vs utzi
- (10) Okela vs haragi
- (11) Bekoki vs kopeta
- (12) Martitzen, eguazten, eguen, bariku, zapatu, domeka vs astearte, asteazken, ostegun, ostiral, larunbat, igande
- (13) Zein vs nahiz
- (14) Baino vs baizik
- (15) Lako vs bezalako
- (16) Aitita vs aitona
- (17) Amama vs amona
- (18) Arineketan vs lasterka
- (19) Barik vs gabe
- (20) Artaziak vs guraizeak
- (21) Astiro vs poliki
- (22) Larregi vs gehiegi
- (23) Atzamar vs hatz
- (24) Izeko vs izeba
- (25) Jaramon vs kasu
- (26) Laba(i)n egin vs irrist egin
- (27) Makatz/madari vs udare
- (28) Osatu vs sendatu
- (29) Otzara vs saski
- (30) Ostera vs berriro/beste behin
- (31) Ostera vs ordea
- (32) Ostantzean/osterantzean vs bestela

2. eranskina: galdetegia

1- Badakit Mikel plazara etorriko dena, hamar bider errepikatu digulako. ()

2- Martitzenean ederto pasatu genuen edurretan jolasean. ()

3- Liburua lurrean egon da nik jaso dudanean. ()

4- Nire amak eguzkitako krema hartzeko esan dit. ()

5- Astiro ibiliko da hemendik, ostantzean jausi eta min hartuko dabelako. ()

6- Gainera, badaude hori uste duten pertsona batzuk. ()

7- Zeintzuk dira zure artaziak, urdinak ala berdeak? ()

8- Ibontxuk zeozer esan gura du, baina inork ez dio jaramonik egiten. ()

9- Ikasten dabil eta ezin izan du etorri. ()

10- Begiraleari ostiko bat jo dio. ()

11- Eurek lo egin duten lekuan hiru ohe handi dagoz. ()

12- Umeek parkean jolasten duten bitartean, gurasoak hotzitu egiten dira. ()

13- Pentsetan dozuna esatea ez da gauza txarra, dinot nik. ()

14- Zuetako norbaiteri heldu zaio noizbait gutun bat? ()

15- Horreek edozer egiten dute etxeko lanak ez egitearren. ()

16- Perkusino klaseetara joaten hasi naz. ()

17- Zelan atzo zure lagunagaz? ()

18- Horri gizonari isuna jarri diote kotxea txarto aparkatzeagatik. ()

19- Esan nion ez nuela berarekin egon nahi. ()

20- Bestalde, abantailak ere badituela uste dut. ()

21- Komunera joan nintzen ura edaten eta bueltau nintzenean ez zegoen inor. ()

22- Labaindu eta atzamarrean min hartu nuenez, nire izekok osatu zidan. ()

23- Nahiko argi ikusten dut orain egin beharrekoa. ()

24- Andra horrek berba larregi egiten du. ()

25- Argiak amatatu aurretik goruntz joaten hasi beharko dugu. ()

26- Norendako ekarri dituzte hainbeste makatz? ()

27- Gustatzen jatzuz nire zapatak? Barriak dira. ()

28- Ez naiz mendira joan, hondartzara baino. ()

29- Etxera noa ze diru barik urten naiz. ()

30- Arrebeak esan deusta liburu hau irakurtzeko. ()

3. eranskina: aztertu diren ezaugarriak

1. MORFOLOGIA

1.1 ADITZAREN MORFOLOGIA

1.1.1 ADIZKI JOKATUAK

1.1.1.1 ADITZ LAGUNTZAILEA

- (1) Dot vs dut
- (2) Naz vs naiz
- (3) Jata vs zait
- (4) Deusta vs dit

1.1.1.2 ADITZ TRINKOA

- (1) Dabil vs ari da
- (2) Dinot vs diot
- (3) Dagoz vs daude

1.1.2 JOKATU GABEAK

- (1) Kantetan vs kantatzen
- (2) Hotzitu vs hoztu
- (3) Amatau vs amatatu

1.2 IZENAREN MORFOLOGIA

- (1) Lagunagaz vs lagunarekin
- (2) Alabea vs alaba
- (3) Goruntz vs gorantz
- (4) Norendako vs norentzat/norentzako
- (5) Norbaiteri vs norbaiti
- (6) Edozer vs zernahi
- (7) Zer edo zer (zeozer) vs zerbait
- (8) Zelan vs nola

Erakusleen morfologia

- (9) Horreek vs horiek
- (10) Eurak vs beraiek

Atzizki batzuk: maileguzkoak eta txikigarriak

- (11) Perkusino vs perkusio
- (12) Ibontxu vs Ibontxo
- (13) Ederto vs ederki

2. ADITZAREN ERABILERA

- (1) Egon da vs zegoen

3. MORFOSINTAXIA

- (1) Badakit etorriko dena vs badakit etorriko dela
- (2) Horri gizonari vs gizon horri
- (3) Jakitearren vs jakiteagatik
- (4) Etxera noa ze... vs etxera noa ...-gatik/-lako
- (5) Zertan zoaz vs zertara zoaz

4. LEXIKOA

4.1 ALDAERA HUTSAK

- (1) Urten vs irten
- (2) Barri vs berri
- (3) Edur vs elur
- (4) Andra bat vs andre bat
- (5) Zeintzuk vs zein

4.2 LEXEMA DESBERDINA DUTEN HITZAK

- (1) Amatatu vs itzali
- (2) Berba vs hitz
- (3) Gura vs nahi
- (4) Jausi vs erori
- (5) Bider vs aldiz
- (6) Martitzen vs artearte
- (7) Baino vs baizik
- (8) Barik vs gabe
- (9) Artazi vs guraize
- (10) Astiro vs poliki
- (11) Larregi vs gehiegi
- (12) Atzamar vs hatz
- (13) Izeko vs izeba
- (14) Jaramon vs kasu
- (15) Laba(i)n egin vs irrist egin
- (16) Makatz vs udare
- (17) Osatu vs sendatu
- (18) Ostantzean/osterantzean vs bestela

4. eranskina: esaldiak zuzentzeko irizpideak

Ondorengo esaldiak Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleek idatzitako hainbat idazlanetan agertu dira (puntuazio marka batzuk gehitu dira hobeto ulertzeko). Idazlanak gai desberdinei buruzkoak ziren: ipuin bat idaztea, lagun bati gutuna, aldizkari baterako iritzi-testua, etab.

- 1- Pentsa ezazu esaldi hauek zure ikasleek idatziak direla. Zuzendu egin behar dituzu, zure ohiko irizpideen arabera, eta ahal den neurrian, lankideekin kontsultarik egin gabe.
- 2- Hiztegia erabil dezakezu nahi baduzu.
- 3- Esaldi hauetako bakoitzean hiru aukera izango dituzu:
 - a) Esaldia zuzena da, ondo dago.
 - b) Esaldia ez da zuzena, zuzendu egin behar da.
 - c) Esaldia ez nuke txartzat emango, baina zalantzak ditut zuzentzerako orduan.
- 4- Lehenengo aukera (a) hautatzen baduzu, besterik gabe, pasa hurrengo esaldira.
- 5- Bigarren aukera (b) hautatzen baduzu, zuzendu ezazu gaizki dagoena esaldiaren azpian dagoen lerroan. Ez duzu esaldi guztia kopiatu behar, nahikoa da esaldi originalean gaizki dagoena ezabatu eta azpian forma egokia idaztearekin. Esaldiko elementu guztiak gaizki daudenean bakarrik idatzi behar duzu esaldi guztia.
Zuzenketa egin ondoren, pasa hurrengo esaldira.
- 6- Hirugarren aukera (c) hautatuz gero, azpimarratu zalantza sortzen dizun hitza (edo hitzak) eta egin gurutze bat esaldiaren eskuinaldean ().
Pasa hurrengo esaldira.
- 7- Gerta liteke esaldi batean bi aukerak agertzea (zerbait zuzenduko zenuke baina esaldiaren beste elementuren batekin zalantzan zaude). Horrela bada, alde batetik, egin zuzenketa bigarren aukeran azaltzen den moduan eta bestetik, azpimarratu zalantza sortzen dizuna eta egin gurutze bat esaldiaren eskuinaldean, hirugarren aukeran aipatzen den bezala.

Azter ezazu esaldi bakoitza eta zuzendu zure ohiko irizpideen arabera, inongo kezkarik gabe. Eskerrik asko.